



Gipuzkoako Odol Emaileak
Donantes de Sangre de Gipuzkoa



Donostia Star Wars Solidarioaren munduko hiriburu bihurtuko da azaroaren 26an eta 27an

- Donostiako hiriburuan egingo da Ambasadroid mugimenduko kideen nazioarteko lehen bilera, bai eta Pink Force Day izeneko jardunaldia ere. Ekimen horietan, Izarretako Gerra sagaren berrehun zale baino gehiago bilduko dira, munduko leku desberdinetatik etorriak.
- Lehen aldia da topaketa solidario hau egiten dena, mundu osoan, eta Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak ikusaraztea eta omentzea du helburu.
- Programaren osagai nagusietako batzuk gaur aurkeztu dira, Donostiako Udaletxean egindako prentsurrekoan. Honako hauek dira: azaroaren 26an eta 27an, Miramar Jauregian, herritarrei irekitako photocalla; Stars Wars sagako jantzien erreplika zehatzak eramango dituzten berrehun lagunen baino gehiagoren desfilea, eta Filarmonia Orkestra eta Abesbatzaren kontzertua, Victoria Eugenia Antzokian.

Donostia, 2021eko azaroaren 18a.- Star Warsen unibertsoa gipuzkoar guztiengana hurbiltzea eta Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearekin lankidetzan aritzea, Star Warsen indarra eta gazteekiko hurbiltasuna baliatuz, gazteen artean emaile berriak sortze aldera. Horiek dira Donostian, azaroaren 26an eta 27an, "Pink Force Day" izenpean, egingo den nazioarteko ekitaldiaren helburuetako bi.

The Pink Force Fundazioak antolatutako ekitaldi honek Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen lankidetzak eta babesa ditu.

Ekitaldian, gurekin izango dugu Albin Johnson 501 Legioaren sortzailea –Star Warsen fansen elkarte da, nazioartekoa, eta 14.000 kide baino gehiago ditu–. Lehen aldia da A. Johnson Espainiara datorrena. Horretaz gain, Samantha Alleyne aktore britainiarra ere bisitatuko du Donostia, ekitaldian parte hartzeko. Star Warsen Stormtrooper (eraso-tropetako kide) izandako lehenengo emakumea da, eta Disney garaiko sagaren bost filmetan agertu da.

Mundu osoan lehen aldiz egingo den ekimen hau prentsurreko batean aurkeztu da, Donostiako Udaletxean, honako hauek bertan zirela: Eneko Goia hiriko alkatea; Jabier Larrañaga Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneak diputatua; Jesús García de Cos Eusko Jaurlaritzako



BABESLEAK / PATROCINADORES

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES





Gipuzkoako Odol Emaileak
Donantes de Sangre de Gipuzkoa



Turismo eta Merkataritza Saileko sailburuordea; Sabin Urcelay Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko lehendakaria, eta Andoni Serrano The Pink Force Fundazioko lehendakaria.

Horiek guztiek nabarmendu dute hainbat hilabetez prestatu izan den nazioarteko ekitaldi honek Izarretako Gerraren unibertsoa Gipuzkoako gizartera hurbiltzeko duen balioa. “Ekitaldi paregabea, solidarioa, mundu magiko honetan murgiltzeko eta horretaz gozatzeko aukera emango diguna, bai fans handiak garenai bai beste guztiei”, azpimarratu dutenez.

Hona hemen **PROGRAMA**:

Azaroaren 26a, ostirala

16:00etatik 18:00etara. Miramar Jauregia. Photocalla eta doako erakusketa, jendearentzat irekia. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera eta figura ikonikoekin posatzera, hala nola, Taun Taun baten gainean dagoen Han Soloren tamaina errealeko figura batekin; Grogu sehaskan, Din Djarinen Mandaloriarraren ondoan; C-3PO bezalako androideak eta R2-D2 R2-KT bezalako droideak; Yoda, Babu Frik eta Gamorrean Guardiak bezalako pertsonaiak, eta, jauregian sartzea lortzen badugu, Jabba Hutten figura bat, lau metro baino luzeagoa.

18:30ean. Maria Cristina hotela, Photocalla Stormtrooperrekin. 19:00etan, Albin Johnsoni eskolta ematea Victoria Eugenia Antzokiraino.

19:30ean. Filarmonia Orkestra eta Abesbatzaren kontzertu solidarioa, Victoria Eugenia Antzokian, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen alde. Programa paregabe batekin, Pascual Osa maisuak eta Filarmonia Orkestra eta Abesbatzak, bere 35 ahotsekin, “oso-oso urruti dagoen galaxia” batera eramango gaituzte, Álvaro Iglesiasek eta Alberto Gonzálezek konposatutako eta Pascual Osak moldatutako “The Pink Side of The Force”, The Pink Forceren himno ofiziala, estreinatuz, Albin Johnson 501 Legioaren sortzailearen eta R2-KT droidearen omenez. Obraren egileak eta Albin Johnson Victoria Eugenia Antzokian izango dira, Star Warsen fanentzat historikoa izango den ekitaldi batean parte hartzeko. Ezin ahaztu filmaren munduko estreinaldia antzoki horretan izan zela, 1977an.

Kontzerturako sarrerak Victoria Eugenia antzokiko leihatiletan nahiz [Donostia Kulturaren web](#)ean eskuratu daitezke.

Azaroaren 27a, larunbata

10:30etik 14:00etara. Miramar Jauregia. Photocalla eta doako erakusketa, jendearentzat irekia.



GIPUZKOA
TURISMOA

BABESLEAK / PATROCINADORES



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES





Gipuzkoako Odol Emaileak
Donantes de Sangre de Gipuzkoa



17:00etatik 18:00etara. Elkartasunezko martxa (desfilea), Miramar jauregitik Donostiako Udaletxera (Alderdieder), Kontxa pasealekutik. Star Wars sagako ehun pertsonaiak baino gehiagok Kontxa pasealekutik desfileatuko dute, filmetako jantzien erreplika zehatzekin. Parte-hartzaileak hainbat herrialdetatik datoz, hala nola Suitza, Ingalaterra, Frantzia, Italia, Holanda, Alemania eta Portugal, Espainiaz gain. Desfilean, halaber, Galactic Academy elkarteak haurrek eta odol-emaleak jasotzen dituzten elkarreko ordezkariak parte hartuko dute, bai eta odol-emaleek ere.

18:00etatik 20:00etara. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteari omenaldia, eta photocalla, Udaletxeko terrazan

Desfilea amaitzean, omenaldi bat egingo zaio Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteari, eta photocall solidario bat ere egingo da. Bertan, nahi duten guztiek argazkiak atera ahal izango dituzte Udaletxeko terrazan gustukoak dituzten sagako pertsonaiekin.

Jarduera solidarioa eta “historikoa”

Prentsaurrekoan, Sabin Urcelay Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko lehendakariak gogorarazi du Gipuzkoako erakundeak 55 urte baino gehiago daramatzala lanean eta, denbora horretan, 100.000 emaile baino gehiago izan direla, 1.250.000 odol-emate baino gehiago eginez.

“Azaroaren 26an eta 27an gazteenengana iristea espero dugu, Star Warsen indarrari esker. Izan ere, gure elkarreentzat garrantzitsua da emaileen harrobia berritzea, bai emaitza-kopuruari eusteko, bai lortutako plasmak kalitatekoa izaten jarraitzeko. Guretzat festa-egunak izango dira, eta, gainera, aukera emango digute gure emaileei eskerrak emateko urte hauetan egindako lanagatik. Eskerrak eman nahi dizkiogu, baita ere, The Pink Force Fundazioari, gurekin kontatu duelako”, esan du.

Bestalde, Andoni Serrano Fundazioko lehendakariak Gipuzkoako herritarrak animatu ditu historikotzat jo duen ekitaldi honetan parte hartzera. “Munduko leku guztietatik etorritako parte-hartzaileak izango dira gure artean. Aukera ezin hobea da Star Wars unibertsoaz lehen lerroan eta oso hurbil gozatzeko, gure hirian orain arte inoiz gozatu ezin izan dugun moduan.”

Bestalde, Eneko Goia Donostiako alkateak azpimarratu duenez, “Donostiarentzat ohore handia da topaketa liluragarri hau hemen izatea, gure hiriak oso harreman estua baitu saga horrekin. Izan ere, Star Warsen lehen filmaren Europako estreinaldia Victoria Eugenia Antzokian izan zen, 1977ko Zinemaldian. 42 urte geroago, 2019an, Izarretako Gerraren azken filmaren estreinaldia antzoki horretan bertan izan zen.” Alkateak, gainera, saga horren zalea dela adierazi du, eta azpimarratu du ekintza horren “esanahi solidarioa”ren garrantzia. Aukera baliatu du, bestalde, Albin Johnsoni eskerrak emateko mugimendu hau sortzeagatik, “fan fenomeno bakoitzak ere gehiago izateaz gain, haur askorentzat itxaropen-izpi bihurtu da-eta”.

Jesús García de Cos Turismo eta Merkataritzako sailburuordea sagaren filmek sustatzen dituzten balioez eta haietatik sortu diren mugimendu solidarioez mintzatu da. Bera ere Star Wars fenomenoaren jarraitzaile sutsua dela esan du, eta nabarmendu du oso ekitaldi garrantzitsua dela, bai duen alderdi altruistagatik, bai herrialdearen eta Donostiaren irudi turistikoa indartzen duelako,



GIPUZKOA
TURISMOA

BABESLEAK / PATROCINADORES



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES





Gipuzkoako Odol Emaileak
Donantes de Sangre de Gipuzkoa



axola handiko biltzarra izateaz gain. Sailburuordeak azaldu duenez, “MICE turismoa bultzatzea ardatz garrantzitsua da euskal turismoaren estrategian, hainbat arrazoiengatik: turistak erakartzen dituelako –bisitatzen gaituztenen % 12k mota guztietako ekitaldiengatik etortzen dira, eta gobernuak kopuru horrek gora egitea nahi du–, desestazionalizazioa sustatzen duelako –astean zein urtean zehar–, eta, azkenik, helmugaren posizionamendua hobetzen duelako”.

Bestalde, Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko diputatuak adierazi duenez, Gipuzkoa “munduari irekitako lurralde solidarioa da”, eta ekimen honek “bi alderdi horiek bateratzen ditu”; horregatik, “Aldundiarentzat plazer handia izan da hura gauzatzen lagundu izana”. “Nazioarteko ekitaldi aitzindari batez ari gara. Garrantzitsua da, gainera, gure lurraldea helmuga gisa proiektatu eta sustatzeko balio duelako, baita turismoaren desestazionalizazioa eragiteko ere, eta honek aukera ematen digu udaz harago jarduera ekonomikoa sortzeko. Baina hori bezain garrantzitsua da haren izaera solidarioa, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteari laguntzeko balio izango du-eta, behar handia dagoen une honetan. Pink Force mugimenduak ilusioa eta itxaropena eman die milaka pertsonari, ume zein handi. Espero dezagun energia hori kutsatzea eta azaroaren 26 eta 27a festa-egun handiak izatea denontzat”, adierazi du.

Informazio gehiago: 639 066 611 thepinkforce@thepinkforce.org



GIPUZKOA
TURISMOA

BABESLEAK / PATROCINADORES

EUSKO JAURLARITZA

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONSUMO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES





Gipuzkoako Odol Emaileak
Donantes de Sangre de Gipuzkoa



INFORMAZIO GEHIAGO

The Pink Force Fundazioari buruz

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta gaixorik dauden haurrengan poza eta ilusioa piztea du helburu. Haien gogo-aldarteak hobetzeko lan egiten dute, adorea eta laguntza emateko ospitalean dauden bitartean, eta une magikoak sortzen dituzte R2-KT droidearekin antolatzen dituzten topaketetan. R2-KTren unitate gutxi daude munduan, eta horietako bat Donostian dago.

Fundazioak hainbat patologia dituzten gaixoak, batez ere ahulenak, eta haien senideak sendotzen dituzten ekimenak sustatzen dituzten erakundeei laguntzen die, haien ingurune fisikoa, autoestimua eta gogo-aldarteak hobetzeko, agindutako terapiak jasan ahal izan ditzaten, elkarte horien eta buru duten fundazioaren elkartasuna bultzatuz eta gizartean zabaltzeko lan eginez.

R2-KTren historia

2004ko azaroaren 13a. Egun arrunt bat izan zen edozeinentzat, baina ez Albin Johnsonentzat, 501 Legioaren sortzailearentzat. Star Warsen Inperioko armaden irudizko dibisio horren xedea da elkartasunezko kausetan esku hartzea, funtsak biltzeko. Egun hartan, Katie bere alabatxoari garuneko tumore bat diagnostikatu zioten, ziurrenik hilgarria. Neskatzak ez du ia denborarik izan bizitzeko. Gaixotasunak aurrera egin ahala, mundu osoan, 501 Legioko 4.000 kide baino gehiago, eta Star Warsen jarraitzaile asko, mobilizatu ziren, kausa galdu bati itxaropena emateko. Ezin da beti irabazi.

Beste egun batean, Johnson elizara joan zen eta ohartu zen leihateek R2 unitatearen forma zutela, bere alaba Katieren gogokoena den figurarena, hain zuzen. Orduan sortu zen ideia: zergatik ez egin R2 bat Katie zaintzeko, lo egiten duen bitartean, zinema-sagaren II. atalean R2-D2k Padme zaintzen zuen bezala? Ideia laster taxutuz joan zen, eta Alliek, Albinen alaba nagusiak, robotaren izena R2-KT izatea iradokitzen du –azken bi letrak ahizpa gaixoarenekin izena gogorarazten duen soinu-jokoa dira–, eta haren kolorea urdin klasikotik arrosara aldatzea, txikiaren gustuko kolorea zen-eta.

Denboraren aurkako lasterketa bat hasi zen. 2005eko apirilean, Albinek Jerry Greene, R2 Builders Clubaren lehendakaria eta sortzailea, ezagutu zuen. Clubeko kideek, neskatoaren historia ezagutzeko, berehala erabaki zuen androide hori egitea –gutziz eraginkorra izan behar zuen–, bai eta beharrezko piezak biltzeko kanpaina handi bat antolatzea ere. **Bitartean, albiste latz bat izan zuten:** Katieren minbizia itzulezina zen eta aurrera zihoan, tregoarik gabe. Egileetako batek bere R2ren zatiak aldatu zituen, arrosa izan zitezen, behin betikoa amaitu bitartean, neskari emateko. Umetxoak robota besarkatu zuen, gaur egun mundu osoan ospetsua den irudi batean.

2005eko abuztuaren 9an, maite zuten pertsonen inguratua eta R2-KTn zaintzen zuela, Katie Johnsonek betiko itxi zituen bere begitxoak. Urtebete baino gutxiago igaro ondoren, 2006ko uztailaren 8an, robota egiten amaitu zuten. Itxaropenaren ikur bihurtu zen gaixotasun zital horrek jota dauden haurrentzat.



BABESLEAK / PATROCINADORES



LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES





Gipuzkoako Odol Emaileak
Donantes de Sangre de Gipuzkoa



R2-KTren oso unitate gutxi daude munduan. Horietako bat Donostian. Unitate guztiek gogorarazten digute *borrokak dirauela, hurrengo Katieren alde borrokatu behar dugula.*



BABESLEAK / PATROCINADORES



LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES

